

Gustatzen ez zaiguna debekatu?

Chapu Apaolaza
Sokamuturra Bai



Gure biziraupenarekin lotura ez duen guztia dibertsioa da. Dena da dibertsioa; sokamuturrean ibiltzea eta berdin-berdin haragia jatea. Ez dago frogatuta gizakiak bere biziraupenerako derrigorrezkoa duenik haragia, beraz,

animalien doako sufrimenduak, dibertsioaren izenean ematen omen den horrek, aurpegi asko dauzka; Basque Culinary Center bera, sagardotegiko txuletak, herriko oilasko erretegia...

Zezenak sokamuturrean parte hartu nahi al du? Galdera hau sortzen da animaliak pertsonen pare tratatzen ditugunean; borondatea eta inguratzen dituen mundua ulertzeko duten gaitasuna gurearen parekoa dela ulertzen dugunean. Pisu batean bizi den eta egunean ordu erdiz parkera ateratzen duten txakurrak bizimodu hori erabaki al du? Nire txakurrek nirekin bizi nahi ote dute? Nahi dutena ematen al diegu animaliei? Galdera arraroak dira. Nola harremantzen gara inguruan ditugun animaliekin? Noiz izaten dugu kontuan haien borondatea? Badira inork zalantzan jartzen ez dituen bestelako praktikak animaliekin.

Sokamuturrean zezenak ez du hainbeste sufritzen. Zezenak berezko grina dauka, erasotzen dutenean aurre egiteko grina eta horregatik gustatzen zaigu hainbeste. Askekintzakoekin ados gaude gauza batean; sokamuturra egiten den plaza eta kaleetako lurra ez da egokia. Animalia ohituta dago belarretan eta bestelako lur motetan eta ez da ero-



Sokamuturra, Hernaniko Gudarien plazan herriko jaietan. Gorka RUBIO | FOKU

so mugitzen herriko kaleetan. Horregatik, Udalarari proposatu diogu garai batean bezala sokamuturra izaten den inguruan hondarra botatzeko, zezena erosoago mugi dadin. Guri ez zaigu gustatzen animaliak sufritzea eta mina hartzea, batzuek kontrakoa uste duten arte.

Zilegi al da animalien egoeraren inguruan gizakien arteko eztabaida eta herri galdeketa egitea? Une jakinetan, bai. Hernaniarrek animalien gaineko erabakiak hartzeko eskubidea duten edo ez eztabaidagarria litzateke egiten dutena legearen kontrakoa balitz. Organo legegileek arautzen dute gizakiok nola portatu behar dugun animaliekin eta arau horien baitan ari gara. Ez zaigu ondo iruditzen jendeari sokamuturraren inguruan galdetzea eta ez galdetzea, adibidez, haragi kontsumoaren inguruan. Animalismoak bere osotasunean aurkeztu behar du, bere ikuspegi osoarekin, ez bakarrik sokamuturrarekin.

Ez zaigu zilegi iruditzen gustu baten arabera, festetako alderdi garrantzitsu bat zalantzan jartzea. Hori ez da zuzena. Gustatzen ez zaiguna debekatzeko eskubidea al daukagu? Gizarte plural baten alde gaude gu. Ez da beharrezkoa

denek guztiaren inguruko oniritzia izatea. Ez gaude gustuen araberako kontsulta festa baten alde.

Zer dago gaizki eta zer ondo sokamuturrean? Sokamuturrak herria batzen du, jende desberdina biltzen du ingurura; ideologia politiko eta familia askotarikoak. Naturarekin daukagun harremana irudikatzen du, maite dugun naturarekin lehian jartzen gaitu. Sokamuturraren sokak, garena irudikatzen du, gure nortasuna. Gure ohiturekin eta gure aurrekoekin lotzen gaitu soka horrek. Natura hirian sartzen da sokamuturraren bitartez, ahanzturan eta bazterketan erortzen ari den natura ekartzen du hirira. Gainera, beldurrarekin harreman desberdina sortzen laguntzen digu, beldurra ulertzen, gu geu ulertzen... nor garen eta gure mugak non dauden erakusten digu. Bizitza lezio bat da, bizitzan arazoren bat gertatuz gero, behin beldurra nola gainditu genuen gogoratuko dugulako. Zezena, bere dimentsio osoan, beldurraren metafora bikaina da, mundu osoan era unibertsalean ulertzen dena. Gizona izaki misteriotsua da, dena gainditu dezakeena. Gizonaren ausardia neurtzen da plazan. Sokamuturrak gizarte hobeago bat egiten du.



Aitor Jaurrieta eta Chapu Apaolaza. Jon URBE | FOKU